

BEASAIN / Liburutegia eta ikasgela handitu egingo dituzte udaletxeko lanekin

Oporren ondoren udaletxeko hainbat bulego lekuz aldatu dituzte lanak amaitzen dituzten arte.

ESKEINE LEGORBURU

Berritze lanetan murgilduta dago azken hilabeteetan Beasaingo udaletxea, bulegoak antolatu eta Udaleko sailak egokitzeko helburuarekin. Udaletxean ez ezik, liburutegian ere nabarituko da lanen ondorioa, udaletxe azpian gun e berria egokituko baitute liburutegirako. Hala, liburutegia eta haren ondoko ikasgela handitu egingo dituzte.

Udaletxeako arkitektoek zehaztuta zuten moduan, orain arte estalita zegoen udaletxe azpiko eremua erabilgarri jartzen ari dira egun hauetan Urbycolan enpresako langileak. Legeak agintzen duena betetzeko, zorua 60 zentimetro jaitsi behar izan dute eremu horretan, erabilgarria izan zedin.

Behin lanak amaituta, 200 metro koadro inguru dituen eremuaren gehiengoa liburutegia handitzeko erabiliko da, Udaleko Hirigintza Sailetik argitu dutenez. "Gainontzeko zatia Ongizate Sailarentzat izango da, biltegi modura erabiltzeko, adibidez.

Lanak amaitzean liburutegirako sarrera aldatu egingo dute. Egungo atea kendu eta ikasgela zegoen lekutik sartu eta irten beharko dute liburutegira doazenak. Beheko solairura liburutegi barrutik jarriko duten sarreratik joan beharko da . Liburutegi ondoko ikasgela ereberrituko dute, baina lanek irauten duten bitartean ez da ikasgela erabiltzerik izango. Udaleko Kultura Saila ikasgela lekuz aldatzekotan zen, baina azkenean liburutegi ondoan egoten jarraituko du aurrerantzean ere. Lanak amaitzean betiko ordutegian egongo da irekita ikasgela, eta oraingoa baino handiagoa izango da. Orain arte ikasgelan zeuden zerbitzuak ere mantenduko dituzte.